

## **ARRASATE / Gurasoen eta haurren arteko irakurketa tailerra**

Umeak zein gurasoak daude zapatuko ekitaldira gonbidatuta. "Gurasoek, gaur egun, badute ume txikiei ipuinak kontatzeko ohitura. Badute kontzientzia hori. Gertatzen da umeak irakurtzen hasten direnean, sei urtetik aurrera, gurasoak ohitura hori ahazten joaten direla". Arrasateko udal liburutegiko Axun Agirianoren hitzak dira. "Eskolaren esku uzten dugu paper hori eta irakurzaletasuna bultzatu nahi badugu, gurasoen presentzia oso garrantzitsua da adin horretan ere".

Gai horiek guztiak lantzeko ordubeteko tailerra proposatzen dute Kulturartetik, gurasoendako zein haurrendako. Saio horretan arlo teorikoa zein praktikoa landuko dituzte. Bi txanda antolatu dituzte; 11:00etan eta 12:00etan. Antolatzailleek eskatzen dute alde zuzetik izena emateko. Kulturaten bertan eman daiteke izena.